Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko irailaren 30a, asteazkena — 187 — Miércoles, a 30 de septiembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IBARRAKO UDALA

*Akats zuzenketa*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 22an, Ibarrako Udaleko lorezain ofizialaren plaza bat betetzeko deialdiaren oinarriak onartu zituen, karrerako funtzionario gisa, oposizio-lehiaketa librearen sistemaren bidez.

Oinarriak onartu ondoren, 2020ko abuztuaren 5eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (147. zk.) argitaratu ziren.

Zuzendu beharreko zenbait akats hauteman dira.

*— 4h) oinarrian esaten da:*

h) 2HE hizkuntza-eskakizunerako eskatzen diren euskara-ezagutzak dituela egiaztatzea. Alderdi hori honako bide hauetatik edozein erabiliz egiaztatu ahal izango da:

— Eskabidearekin batera, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan adierazitako gaitasun-ziurtagiriren bat aurkeztea.

*— Esan behar du:*

h) Euskarako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen agiriaren jabe izatea, edo, hala badagokio, zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera eskuratzea.

*— 8. oinarrian hirugarren ariketari dagokionez esaten da:*

Euskararen HE2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da.

Azterketa honetan, 2. hizkuntza-eskakizunerako eskatzen diren euskara-ezagutzak egiaztatzeko ahozko gaitasuna ebaluatuko da. Proba hori IVAPek euskara gaitasuna egiaztatzeko izendatutako kideak egingo du, prozesuaren barruan iragarriko diren lekuan eta egunetan, Udalbatzaren iragarki-taulan eta www.ibarra.eus. webgunean.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, proba hori egitetik salbuetsita egongo dira, dagokion fotokopia aurkeztuta, jarraian aipatzen diren euskara-ziurtagiri edo -tituluren bat dutela egiaztatzen dutenak:

— EGA edo ziurtagiri edo diploma baliokideak.

— Irakasleen sektoreko 2. HE.

— IVAPen ziurtagiria, lortu nahi den lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoren bat egiaztatu duela egiaztatzen duena.

*— Esan behar du:*

* Hirugarren ariketa: Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Ariketa hau gainditzeko beharrezkoa izango da lanpostuari esleitutako euskarako 2. hizkuntza eskakizuna gainditzea, edo IVAPek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzea edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren B-2 mailarekin homologatutako euskara ezagutza egiaztatzen duen titulu

## AYUNTAMIENTO DE IBARRA

*Corrección de errores*

Con fecha 22 de julio de 2020, fueron aprobadas por la Junta de Gobierno Local las bases de la convocatoria a cubrir, con carácter de personal funcionario de carrera, mediante el sistema de concurso oposición libre, de una plaza de oficial jardinero del Ayuntamiento de Ibarra.

Aprobadas las bases, las mismas fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 147 de 5 de agosto de 2020.

Se han detectado una serie de errores que deben ser corregidos.

*— En la base 4 h) se dice:*

h) Acreditar que posee los conocimientos de euskera exigidos para el perfil lingüístico P2. Este extremo podrá acreditarse por cualquiera de los siguientes medios:

— Presentación junto con la instancia, de alguno de los certificados de aptitud señalados en el artículo 41 del Decreto 86/1997, de 15 de abril.

*— Debe decir:*

h) Estar en posesión del documento acreditativo del perfil lingüístico 2 de euskera o, en su caso, obtenerlo conforme a lo establecido en la base octava.

*— En la base octava, cuando se refiere al tercer ejercicio se dice:*

Consistirá en la acreditación del perfil lingüístico PL2 de euskera.

El examen consistirá en evaluar la capacidad oral para acreditar los conocimientos de euskera exigidos para el perfil lingüístico PL2 Esta prueba se llevará a cabo por el miembro designado por el IVAP para acreditar la aptitud de Euskera en el lugar y fechas que se anunciarán dentro del proceso, en el tablón de anuncios de la Corporación y la página web: www.ibarra.eus.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, quedarán exentos/as de realizar esta prueba quienes acrediten, mediante la presentación de la fotocopia correspondiente, estar en posesión de alguno de los certificados o títulos de Euskera que se citan a continuación:

— EGA o certificados o diplomas equivalentes.

— El PL2 del sector docente.

— Certificación del IVAP de haber acreditado el perfil lingüístico correspondiente a la plaza a la que se opta o alguno superior.

*— Debe decir:*

* Tercer ejercicio: Euskera. Obligatorio y excluyente.

Para superar este ejercicio será necesario superar el perfil lingüístico 2 de euskera asignado al puesto de trabajo, o acreditarse mediante certificado expedido por el IVAP o estar en posesión de alguno de los títulos o certificados que acrediten conocimientos de euskera homologados al nivel B-2 del Marco

EK\CV GAO-I-2020-04794

edo egiaztagiriren bat izatea, hain zuzen ere azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan zerrendatutakoren bat.

Era berean, hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izango da euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko, eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoari jarraiki.

*— 11.5 eta 12.2 oinarrietan honako hau adierazten da:*

«11.5. Gainditutakoen zerrenda udaletxeko iragarki-taulan argitaratu eta hogei egun naturaleko epean, epaimahaiak proposatutako izangaiek 4. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dituzte Ibarrako Udaletxean.

12.2. Izendapenaren berri emango zaio interesdunari, eta hogeita hamar egun naturaleko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita».

*— Atal horien ordez, testu hau jarri behar da:*

«11.5. Gainditutakoen zerrenda udaletxeko iragarki-taulan argitaratu eta hogei egun balioduneko epean, epaimahaiak proposatutako izangaiek 4. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dituzte Ibarrako Udaletxean.

12.2. Izendapena interesdunari jakinaraziko zaio, eta hark hogeita hamar egun balioduneko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita».

*— II eranskinean. Eskaera orrian, 3. Esperientzia, esaten da:*

Administrazio Publikoan edota enpresa pribatuan (merezimenduak kalifikatzeko). Administrazioaren edo enpresaren izena.

*— Esan behar du:*

Administrazio Publikoan (merezimenduak kalifikatzeko). Administrazioaren izena.

Ibarra, 2020ko irailaren 24a.—Igor Zapirain Lizarribar, alkatea. (4794)

Común Europeo de Referencia para las Lenguas, relacionados en los artículos 3 y siguientes del Decreto 297/2010, de 9 de noviembre.

Asimismo, se podrá acreditar el perfil lingüístico de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

*— En la base 11.5 y en la base 12.2 se señala lo siguiente:*

«11.5. En el plazo de veinte días naturales a contar desde la publicación de la relación de aprobados en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, los aspirantes propuestos por el Tribunal presentarán, en el Ayuntamiento de Ibarra, los documentos acreditativos de los requisitos expresados en la Base 4.

12.2. El nombramiento será notificado al interesado, que deberá tomar posesión en el plazo de treinta días naturales a contar desde el siguiente a su recibo».

*— Dichos apartados deben ser sustituidos por el siguiente texto:*

«11.5. En el plazo de veinte días hábiles a contar desde la publicación de la relación de aprobados en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, los aspirantes propuestos por el Tribunal presentarán, en el Ayuntamiento de Ibarra, los documentos acreditativos de los requisitos expresados en la Base 4.

12.2. El nombramiento será notificado al interesado, que deberá tomar posesión en el plazo de treinta días hábiles a contar desde el siguiente a su recibo».

*— En el anexo II, modelo de instancia, en el apartado 3. Experiencia se dice:*

En la Administración Pública y/o en la empresa privada (para la valoración de méritos). Nombre de la Administración o la Empresa.

*— Debe decir:*

En la Administración Pública (para la valoración de méritos). Nombre de la Administración.

Ibarra, a 24 de septiembre de 2020.—El alcalde, Igor Zapirain Lizarribar. (4794)

EK\CV GAO-I-2020-04794